



## ATE IREKIAK

Laudio Ikastolak ate irekien eguna burutuko du urtarrilaren 17an, ostirala, 16:30etik 18:30era.

Urtarrilaren 27an irekiko den 2020/21 ikasturterako matrikula gauzatzen interesa izan dezaketen familia guztxi irekitako ekimena izango da, eta batez ere 2018an jaiotako haurrak dituzten familiei, 2 urteko haurren eskolaratzeko espazioak eta funtzionamendua familia giroan gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten.

Horrez gain gainerako Haur eta Lehen Hezkuntzako mailak eta DBHko eremuak ezagutzeko aukera ere eskainiko zaie familiei.



## ORIENTAZIO AZOKA

Ate irekiekin batera Laudio Ikastolak ikasle eta gurasoei zuzendutako 10. Orientazio Akademiko eta Profesionalerako Azoka ospatuko du urtarrilaren 17an, ostirala, 15:30etik 19:00etara.

Aurreko ikasturteetako esperientziari jarraituz, ikasleei beraien ondorengo ikasketen aukeraketan laguntza eskainiko zaie bertan, ekimena gurasoei ere zabalik egongo delarik.

Azokan Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatu eta Goi Mailako Lanbide Heziketa ikastetxe ezberdinen eskaintza ezagutarazteko informazio mahaiak (triptikoak, azalpen orriak, e.a.) bisitatzeko tartea zabalduko da. Horrez gain, ikastetxeek beraien eskaintza eta antolaketa azaltzeko hitzaldiak ere eskainiko dituzte.

## HITZALDIA

Laudio Ikastolak “Mugimendu librea eta jolasaren beharra” hitzaldia eskainiko du urtarrilaren 15ean, asteazkena, 18:00etan Laudioko Kultura Etxeko Arraño gelan Txusma Azkonaren eskutik.

Jolasaren garrantziaren inguruan zalantzarik ez badago ere, egunerokotasunean geroz eta aukera gutxiago dute haurrek jolasa modu libre eta espontaneoan garatzeko. Zein ondorio ditu honek? Zer egin ahal dugu? Jolas libreaken izenean, dena egin al daiteke?

### TXUSMA AZKONA

Txusma Azkona Hezkuntza alorreko eskarmendu handiko profesionala da, Haur Hezkuntzan diplomatua, Ikastola munduan ibilitakoa eta Lizarrako Haurreskola publikoko hezitzaile-zuzendari hamalau urtez aritutakoa. Euskal Herriko Pikler-Lóczy elkarteko sortzaileetako bat izan zen eta gaur egun Plistiplasta familia guneko partaide eta sortzaileetako bat da.

Hitzaldian haurtzaindegi zerbitzua egongo da.